#astekonomia

Azaroaren 23tik 27ra bitarteko astea

Industriako prezioek %8,9 egin zuten gora urrian



Iturria: Eustat.

Urrian, Euskadiko industriako prezioek %8,9 egin dute gora aurreko urteko hilabete beraren aldean, horrela azken bi hilabeteetan areagotu egin da martxoan hasitako goranzko bidea. Sektoreka, energiak bultzatu zuen gehien prezioen igoera (%41,9), eta haren atzetik kokatu ziren bitarteko ondasunak (%4,4) eta ekipo ondasunak (%0,8). Kontsumo ondasunek, aldiz, %0,8 egin zuten behera.

Eraikuntzaren kostuak %9,8 hazi ziren



Iturria: Eustat.

Industriako prezioen azken aldiko bilakaerarekin bat etorriz, **urrian eraikuntzaren kostuak urte arteko % 9,8 hazi ziren Euskadin,** eta urteko erregistrorik altuenak markatu zituzten. Lehengaiak (%11,6) eskulana (%4,7) baino gehiago garestitu ziren. Sektoreka, kostuek gora egin zuten bai obra zibilean (%10,0) bai eraikuntzan (%9,8).

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

#astekonomia

Azaroaren 23tik 27ra bitarteko astea

Etxebizitza hipoteken beherakada irailera arte

Etxebizitzen gaineko hipotekak

Urte bakoitzeko urtarrila-iraila metatua



Iturria: INE.

2026ko urtarriletik irailera bitartean etxebizitzen gaineko 17.418 hipoteka sinatu ziren Euskadin, aurreko urteko aldi berean baino %6,8 gutxiago. Jaitsiera gorabehera, azken hamar urteetako hirugarren erregistrorik onena da, nahiz eta euriborrak ehuneko puntu bat egin duen gora urtarriletik irailera bitartean.

Azalera handietako salmentek %0,3 egin dute gora

Azalera handietako salmentak

Urte bakoitzeko urria. Indizea



Iturria: Eustat.

Urrian, Euskadiko azalera handietan eta elikadura kate handietan egindako salmentak %0,3 hazi ziren urte arteko tasan. Hazkunde hori elikagaien bilakaera positiboak eragin zuen (%0,4). gainerako produktuen salmentak hazkunde apalagoa izan bait zuen (%0,1). Sektoreko enplegua egonkor mantendu zen.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila